


# Antxiñako fotografixia



## IRRINTZI Otxotiak Euskal Herriko txapelkun urten ebenekua

**O**rain dala hogetamar urte pasatxo inddar haundixa hartu eben Euskal Herrixan gizakumez moldautako zortzikote musikalak, hau da, otxotiak. Frankismuak ezarritako eragozpen eta mugak zelabaitt gaindituaz, gerra osteko lehenengo urtietan baztertua eta debekauta egon ziran euskal kanta asko zabaldu ebein kora txiki honeik; polifonia zaharreko piezak eta atzerriko doinuak be sartu zittuain euren erreperitoxotan; eta azkenik, otxotientzat berariz sortutako abesti barrixak be ezaguketara emun ziran. Herri gehixenetan eraketan ziran kantaldi honein bittartez, pultzakadatxo bat emun xakon sasue haretan hain egoera larrixan eguen euskal kulturari.

Zortzikote honein artian famauenetako bat Oñatiko IRRINTZI izenekua izan zan. Gazte-kuadrilla baten izena zan IRRINTZI hasieran; batzuk parroixako koruan kantatitten ebein; 1962xan **Hego Euskal Herriko Zortzikotien I. Lehiaketia** (*Concurso Vasco-Navarro* esaten zan orduan) antolatu zanian, gauzatu zan IRRINTZI Otxotia **Joxe Mari Arzuagaren** zuzendaritzapeian. Hainbat konkurso eta txapelketetan partu hartu eben, 1964ko **Euskal Herriko II. Lehiaketan** sari nagusixa eskuratuaz. Argazki hau Bilboko **Coliseo Albia** teatruan atarata dago 1964ko martixaren 19xan, txapelkun geratu ziran egunian, hain zuzen. Ezkerretik eskumara honeitxek dittugu kantariok: **Joxe Antonio Billar, Joxe Mari**

**Arzuaga** (zuzendarixa), **Juan Migel Ordoiki, Nikolas Erostarbe, Felix Arregi, Joxe Errasti, Joxe Otalora, Jabier Letamendi** eta **Manolo Urzelai**. Handik puntuko IRRINTZIk disko txiki batzuk be grabatu zittuan Bartzelonan, baiña 1967xan Joxe Mari Arzuaga istripu batian hil egin zan: zuzendarixaren heriotzak beste arrazoi batzuekin batera zortzikote honen deseginketia ekarri eben.

J.E.

Fotografixia eta argibidiak  
Jabier Letamendik eta  
Manolo Urzelaiak eskuratu doskue.

**VRZELAI  
DENDĀ**

Kale Barria, 26  
OÑATI



Atzeko kale z/g  
Tfnoa: 71 61 71 OÑATI

- Salerosketak
- Traspasoak
- Alokairuak
- Mailegu eta dirulaguntza
- Tramitazioa

Gure zeregin guztiak inbiliaria jabetzaren agente batek begizatuak dira, aldeka ekonomikoak egiteko legeztauta den bakarra.